

Joseba Tobar-Arbulu

Ingeniaria

Separatismoaren eskubideaz hitz bi

■ Separatismoaz mintzatu ziren gure arbasoak. Independentziaz ere, noski. Nominalista ez garenez, egun, separatismoa aukeratu dugu. Separatismoa hautatu dugu, zeren estatuak nazioarteko zuzenbidean 'ukitezinezko' balira bezala aurkeztu nahi izan dira. Baina, oh historia!, Txekoeslovakia, kasu, bitan banatu da inolako gerla etnikorik gabe, *malgré* zenbait politikero. Txekiar Errepublika eta Eslovakia elkarrengandik separatu egin dira. Ukitezina omen zena, *atomo* politikoa omen zen Estatu sakratua, bi estatu desberdinetan, bitan banaturik, dago.

Separatismoa aukera legitimoa denez, nork uka eskubide hori, norbera ez bada sasi-intelektual autoloriatua? Ez dago inolako argudiorik eskubide hori ukatzeko, ez bada indar militarren 'argudio faktikoa', zeinak espainiar Estatuaren batasun sakratua babesten baitu (konstituzioak *dixit*). Non 'esentzia' handiago 'una, grande y libre' delako horretan baino. Non ote daude gure 'ez-esentzialistak' (sic) esentzia sakratu hori salatzen?

Euskal herritar sezesionista garenok dagokigu arazo sozial, linguistik, kultural, politiko eta ekonomiko guztiak arakatzu mugimendu sezesionista indartsu bat antolatzea, espainiar eta frantziar estatuetatik erabateko separazioa bultzatuko duena. Euskal Herri anizkunak aske, independentea, izan behar du XXI. mendeko desafio mota guztiei aurre egin ahal izateko.

Guk baino zarata gutiago ateratzen dutenak argi daukate sezesioaren eskubide hori, maila teorikoan bederen. Izan ere, Huw Tothmas-ek esaten duenez, ('Perestroika in the Western Wing Nationalism and national Rights within the European Community', W. Twining (ed.), 1991, *Issues of Self-Determination*, Aberdeen: Aberdeen University Press), eskoziar eta galesar abertzaleek independentzia, autodeterminazio eta subiranotasuna segurtatzeko konpromezua hartu dute jadanik.

Gure sasi-intelektual 'ez-esentzialistek' (sic) egungo Europaren eraikuntzak nazio-Estatua deusezten duela aldarrikatzen duten bitartean,

(ahazturik edo 'subsidiaritate' printzipio dela bide, estatuen gaineko Europaren eraikuntza dela Maastrichteko Itunaren bidetik egin nahi dena), galesar eta eskoziar abertzaleak 'equal partnership in Europe' delakoa hasi dira bultzatzen, Europa berrian 'independentzia' modu berriaz ulertu ahal izateko.

Independentziaren kontzeptu berri horrek, egungo Europar Komunitateko nazioei permititu behar zaie 'azpi-estatu' mailatik 'estatu' mailera mugitzea, beraiek holaxe nahi baldin badute ('... national entities within the EC should be allowed to move up from the 'sub-state' level to the 'state' level of membership should they so wish').

Honela eginez, Europar Komunitateko nazio desberdinek Komunitate horren estatu kideen status berbera edukiz, askoz zuzenbidezkoagoa den subiranotasunaren partaidetza lor dezakete. Estatuaren subiranotasuna gainditu gura bada, nazioa deuseztatu gabe (Mac Cormick-ek esaten duenez, aipatu liburu berean), Thomas-ek aipatzen duenaren antzeko zerbait bultzatu beharra dago, hau da, Europa barruan filosofia normatibo/legal praktikoko bat martxan jarri behar da helburu hori lortu ahal izateko, ('Thus, we may be able to allow the full expression of nationalism, self-determination and cultural diversity within the European Community...').

Hauze al da hemengo post-modernoek nahi dutena, alegia, autodeterminazio eskubidea erabiliz, egun Espainiak eta Frantziak daukaten subiranotasun maila berbera edukitzea, 'equal partnership in Europe' alegia? Europar eskenategi konfederala bultzatu nahi al dute, non Euskal Herri anizkunak beste nazioek daukaten subiranotasun maila berbera (Espainia eta Frantzia barne) edukiko baitu, ala 'aniztasun', 'demokrazia' eta are 'Europa'-ren izenean Euskal Herria, euskal nazioa, deuseztatu nahi dute Espainian eta Frantzian, alegia, ohiko asimilizioa proposatu, orain Europa aitzakiatzat hartuz lehen 'marxismo leninismoa'-ren izenean 'langileriaren batasuna' zen sasi-aitzakien ordez? ■

Natxi Aranburu



Opari belikoak

Olentzero joan zaigu; ematen zaion piurari kasu eginez gero, nork sinestu mendira lanera joan denik?; hala ere, joan, joan zaigu. Gerotxoago egin dute bisita errege magoek; hauek, hain urrunetik etorrita eta gainera mundu zabalago batetan utzi behar dituztenez opariak, berandutxoago heldu zaizkigu. Badago halako kompetentzia modukorik euskalduna eta ekialdekoen artean; ikastolak izan ziren —honetan ere— euskaldunaren aldeko apostuaren aintzindari oraindik urte asko ez direla.

Kompetentzia-kompetentzi, opariak ekartzen dituztelarik maitatuak dira bai bata eta bai besteak, eta gure mundu sustarbako honetan denari jarri behar zaionez irizpidea, opariak aukeratzeko ere kontutan hartu beharrekoak ei dauzkagu. Euskadiko Kontsumitzaileen Elkartek gutxienez zortzi jartzen ditu; batek ematen du barregurea edo negargurea; jostailuez ari delarik, Olentzerok edo erregeek «belikoak edo sexistak» direnak ez litzukete oparitu behar. Honetan nenbilerarik Ezker Batuko arduradun nagusiari zera entzun diot, gure Herria dela Europar zehar polizia gehien duena; hau da, ofizialki armaturik doazenen kopururik altuena. Opari emaleek badute orduan pipa zerez piztu! Eromena!; oseake armatutako jenderik gehien duen bazter honetan —konputoan ez dira sartzen, seguruenik, ehiztariak— armamentuarekin zerikusirik ez duen oparigintzari dedikatzea... Ez da makala! Olentzero gaixoak hobe luke ikazgintzari bizitza osorako lotzea, eta Euskadiko Kontsumitzaileen Elkartekoek hobe lukete tirorik belikoenak beste nonbaiterantz zuzenduko balituzte.

J.R. Etxebarria



Erregea al dator?

Lehenengo zutabeko gaiarekin segitu nahi dut, urtarrilaren 6a pasatu berria den honetan. Errege magoak eta Espainiako erregea gauza bera ez direlako.

Erregeak datoz! Erregeak datoz, Jesus adoratzan. Gu be hemen gatoz, gu be hemen gatoz, limosnia batzen. Hori kantatzen genuen umetan errege egunean, saritxo baten eskean, makila eskuan. Ematen ziguten apurtxoarekin, pozarren, ezin pozago, alde egiten genuen hurrengo etxe aurrean kantatzera. Gaur egun ere salatzen gara ohitura hori mantentzen, eta guraso askok zinez atsegin hartzen dugu, seme-alabak eta ilobak edo auzoko haurrak horrelako eske-kantuz datozkigunean. Eman ere bihotzez ematen dugu.

Baina, ohitura hori gora-behera, ez ditugu errege-erreginak maite. Are gutxiago gu zapaltzen gaituen Espainiakoak direnean. Eta zapaltzeaz aparte, arrazoi franko ditugunean horiek etsaitzat hartzeko, estatu-kolpe famatu baten atzetik ibili zirela eta GALen antolaketan parte hartu zutela susmatzeko arrazoiak ugari baitira. Eta gaur egun ere gure autodeterminazio-eskubidea praktikara eramateko traba baino jartzen ez dutelako, eta gure bakea oztopatzen dutelako.

Horregatik nioen lehengoan eta errepikatzen dut oraingoan, Athleticen agintariek irain egin digutela euskaldunoi, Espainiako erregeari mendeurreneko ospakizunon ohorezko lehendakaritza eskaintzean. Utikan!

L A P h I T Z A

